

## Eztei gau odoltsu eta gomazkoa

**Filma:** La fiancée de Chucky / La novia de Chucky. Estatu Batuak, 1998.  
**Jatorrizko izenburua:** Chucky's Bride.  
**Zuzendaria:** Ronny Yu. **Gidoia:** Don Mancini. **Argazkia:** Peter Dann. **Musika:** Graeme Revell. **Aktoreak:** Jennifer Tilly, Brad Dourif, Katherine Heigl.  
**Iraupena:** 89 m.

GORRIAK ikusi izan ditu Chucky gureak. Infernutik ateratako muñeko deabruzko pikaro, ganberro eta hiltzaile amorratu horri leporatu izan dizkiote, azken ez dakit zenbat urteotan, adin gutxiko jendilaje basak egin dituen barrabaskeria guztiak. Liverpooloko bi mukizu haiek 4 urteko mutikoa torturatu eta akabatu zutenean, kasu, sasi psikologo guztiek agudo eta erraz asko aurkitu zuten espantukeria horren zio eta kulpantea: bi hiltzaile horiek ikusi berria zuten bideoan Chucky madarikatu horren hirugarren mentura eta kalentura odoltsua.

Salaketa memelo horren ondorioz, pelikularen gainean jarri zuten Britania Handian, Frantzia bezala, debeku tentela. Ondorioz, bideo-klubetatik kendu zituzten kaset guztiak. Hori neurri inozoa, hori!

### Mendeku ederra asmatu du isilean

Bai, gorriak ikusi izan ditu duela urte asko zinemarako jaio zen panpin gaiztoak. Baina ez du axolarik. Mendeku ederra asmatu du isilean, kasik zeluloidezko bakardadean bizi izan dituen azken urteotan: pantailetara itzuli-ko zen, eta izan zuen emazte-gaia berreskuratu ondoren sariren bat lortuko zuen izen handiko zinemaldi fantastiko batean...

Burutazio bezala ez zegoen batere gaizki. Burutazioa



ARTXIBOKOA

Chucky eta bere laguna, filmeko pasarte batean.

baino gehiago zen, ordea, egitasmo bete-betea; izan ere, bere buruari jarritako erronka gainditu zuen. *Chucky's Bride*-k Frantziako Fantasiaren Zinemaldian, Avoriaz famatu haren oinordekoa den horretan, garaikurrak eskuratu eta gero, Baionako aretoetan dabil txapeldun. Hegoaldekoetan, berriz, apirilean estreinatuko da. Hori mehatxua da promesa baino gehiago.

### Chuckyk badu bere tamainako neska maitalea

*La fiancée de Chucky* ez da batere berretorrera txarra, filmak dituen akats eta hutsune hainbat barkatuz gero. Eta barkatzeko prest, irrikan gaude. Chucky gurea ilunpetatik bueltatu da, eta badu bere tamainako neska

maitalea. Neska panpin gaizto-gaiztoa. Eta baita guapa ere oso. Ez ezazu pentsa Barbie minbera horretan. Tiffany hori bestelako goma batez egina da.

*Chucky's Bride* ez da izan behar zuen guztia. Ez da biribila, eta azken momentuetan amore ematen du. Ez da izan behar zuen bezain basa. Baina berdin digu. Jakin badakigu, nahiz eta triparik, adorerik, ez duten zintzo zurbil petral horiek garaile atera, Chucky itzuliko dela. Inoiz baino ozpin-duago. Inoiz baino aldarte txarragoan. Ezkonduta edo mutil zahar. Auskalo. Bueltatuko da.

Bitartean, ikus ezazu jenio biziz eta umore beltz-gorritz eginiko zeluloide puska jator hori.

Begoña del Teso

## Entzuleen asetasun erromantikoa

**Orkestra:** Bilbao Orkestra Sinfonikoa.  
**Zuzendaria:** Theo Alcantara. **Egitaraua:** R. Strauss-en *Kontzertua biolin eta orkestrarako, re minorrean, op. 8*, J. Brahms-en *2. sinfonia, re maiorrean, op. 73*. **Bakarlaria:** Sarah Txang. **Non:** Bilboko Ayala antzokia. **Noiz:** Martxoaren 19a. **Jende kopurua:** Gela ia betea, 800 lagun.

SARAH TXANG korear jatorria duen 17 urteko neskatxak bi gauza erakutsi zizkigun bere artetik aparte Bilbon emaniko joaldian: musikaria izateko jardueran ez dago sexu bereizketarik, eta, bestetik, askotan ez bezala, ume aztiak duten etorkizun prometigarria haurtzaro eta gaztaroaren arteko pasarte ondo heziak izanez gero.

Richard Straussek 17 urte zituela egin zuen bezala, biolin eta orkestrarako kontzertu erromantikoa izan da Txangen lan-froga ere, Bilbao Orkestra Sinfonikoaren (BOS) eta Theo Alcantararen laguntza egokiaz.

Hasierako *allegro*-tik Sarah-k arkuada indartsua duela eta ezkerreko eskuaren teknika handiaren jabe dela asmatu genuen orkestraren jotze bateratuaren artean. Joaldi geldoan zehar gaztetetasunak ez duela aitzakia izan behar heldutasun lirikoa eskaintzeko frogatu zuen bakarlaria: esaldi erromantikoak ziren lekuko, *piano* eta *forte*-en intentsitate desberdinak... kontzer-

tuaren azken *errondo* konplexuan gazteak baiezatu zituen aurreneko gaitasunak eta birtuosismoarako bide zabaldua daukala bere bilakaeran, aurrera egin ahala.

Onartzekoa izanik publikoak duen begikotasuna ume edo gazte aztiarekiko, onartu beharra dago Sarah Txang-en kasuan justifikatuak zirela antzoki-gelak jaurti zituen txalo eta algarak eskupeko graziaren aurretik eta ondoren.

Aitzinako poztasun girotik lotua etorri zen BOSek eza gutzen duen Brahms-en *2. sinfonia*, sendo eramanda Theo Alcantararen eskuetatik. Lehendabiziko mugimendutik oskestra osoak sensibilitate erromantikoa azaldu zuen, hasierako

tronpa, txirulak, korno edo biolinen partehartzea azpimarratuz, kenketaren zorroan biolinen denborapasa txikiak. *Adagio* eta *allegretto* mugimenduak ezohiko erritmoz beterik daude. Maisuak, *adagioan*, erritmo eta kontrapuntuan egoki eraman zuen, eta *allegrettoan*, ordea, landler joaldian erritmo desberdinak, soinu kolpe bateratuak eta fraseoak lortu zituen. Giro horretan musika-

riek kontzentraturik biribildu zuten joaldia bizitasuna emanaz laugarren mugimenduan, zorion brahmsiarra lortu arte.

Jesus Mari Begoña

### Sarah Txang

#### Hasierako

*allegro*-tik

arkuada

indartsua duela

eta ezkerreko

eskuaren

teknika

handiaren jabe

dela asmatu

genuen

orkestraren

jotze

bateratuaren

artean